

4

Eragileen sarea osatzen. Haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragitera bideratutako eredu baten azalpena

Iñaki Eizmendi

EBETE hizkuntza zerbitzuak

info@ebete.org

Sarrera-data:2014-07-15/ Onartze-data: 2014-09-19

Laburpena. Haur eta gazteen hizkuntza-ohiturei begira hizkuntza-sozializazioaren ikuspegiak laguntzen digu testuingurua ulertzen eta norabidea ikusten. Norabide horretan herri mailan zuzeneko eragile izan daitezkeenik lan egin behar da eta hizkuntza-ohituretan eragitea helburu duten erakundeek elkar-lanean aritu beharko lukete benetan eraginkorrak izatera begira. Eragileen sarea osatzen horri begirako adibide bat da, hainbat udalerritan modu batera edo bestera garatu izan dena eta adibide zehatz batekin aurkeztu nahi izan dudana. • *Hitz-gakoak:* hizkuntza-ohiturak, hizkuntza-erabilera, eragileak.

Abstract. With respect to the language habits of children and young people, the perspective of language socialization helps us to understand the context and to see the direction. In this direction it is necessary to work with those who could be direct players on a local level, and the institutions aiming to influence language habits will need to work together if they are to be truly effective. Forming a network of players is an example of this; it has been developed in one way or another in numerous municipalities, and I wanted to present it through a specific example. • *Key words:* language habits, language use, players.

SARRERA

I

Euskararen transmisioaren inguruan lanean ari garen erakunde eta bestelako eragileen lehentasunetako bat haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragitea da. Artikulu honetan, eta hizkuntza-sozializazioaren ideiatik abiatuz, bide horretan kokatutako hainbat oinarri eta eredu bat aurkezten dira.

Artikulu honetan euskararen transmisioarekin lotutako hainbat proposamen aurkezten ditut. Proposamen hauek ez dira ikerketa baten ondorioa, arlo ezberdinetan urteetan izandako bidean aurkitutako eta garatutako tresnak baizik.

Transmisioaz ari gara. Haur eta gazteei euskara transmititu nahi diegu. Zertarako? Hizkuntza-ohitura batzuk izan ditzaten. Hau da, lagunartean eta beste hainbat harremanetan euskaraz egitea nahi genuke. Edo, beste modu batera adierazita, haur eta gazteek euskara asko erabiltzea nahi genuke, askorekin (ez soilik irakasleekin edota guraso euskaldunekin), eta egoera askotan (ez soilik eskolan eta guraso euskaldunen etxeetan).

Eta zer behar da horri begira? Jaiotzen direnetik sozializazio-prozesu batean sartzen dira haurrak. Sozializazio-prozesu horretan hizkuntza-sozializazioa ere ematen da: hizkuntzak ikasten dituzte, eta hizkuntzak norekin, zein egoeretan eta nola erabili ere ikasten dute. Lagunarteko harremanetan euskara erabiltzea ibilbide horren ondorioetako bat izango da. Hizkuntza-sozializazioaren ideia oso argi ulertzen da *Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen* ikuspegitik: Soziolinguistika Klusterrak egindako ikerlana da eta *Erabileraren GPSa* izenburuarekin argitaratu zen 2011ean.

Ikerketa horretan gazteen hizkuntza-ohituretan eragiten duten faktoreak aztertzen dira. Hauek dira, labur-labur, faktore horiek:

Nahiz eta etxetik euskara ez jaso, inguruan euskara asko entzun badut, erreferente asko baldin baditut, euskaraz kontsumitzeko aukera asko baditut eta euskara balio indartsu eta egokiekin lotzen badut, nahiko normala izan daiteke lagunartean eta beste hainbat harremanetan euskaraz egiteko ohitura izatea.

1. taula. Gazteen hizkuntza-ohituretan eragiten duten faktoreak

Ama-hizkuntza: etxetik euskara jasotzea.
Ingurune hurbila: kalean euskara asko entzutea, familian, etxean...
Bakoitzaren jarrerak: euskararen aldeko jarrera izatea, aktiboa, pasiboa, kontrakoa...
Hizkuntza-gaitasuna: ezagutzen dugun hizkuntzetako bakoitzean dugun gaitasuna. Adb: euskalkian aritzeko gai izatea, lagunarterako erregistro aberatsa...
Identitate kolektiboa: norbera ibiltzen den giro eta taldeetan euskararen aldeko jarrerak ikustea, euskararekiko jokabide aktiboak ikustea...
Harreman sareetako hizkuntza-arauak: harreman sare guztietan izaten dira hizkuntza-arauak. Euskarak nolako lekua du norbera ibiltzen den sare horietan?
Pertsona eta talde erreferenteak: 2-3 helduagoak diren kuadrillek euskararekiko erakusten dituzten jokabideak, erreferenteak diren pertsonai ezagunek erakusten dituztenak...
Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa: hizkuntza bakoitzari buruz jasotzen ditugun mezuak (zein baloreekin lotzen diren...).
Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa: euskarak gero eta leku gehiago duela baloratzea, eskolarekin soilik lotzea...
Kontsumo eskaintza: produktu eta zerbitzuak euskaraz eskura izatea (musika, eskola orduz kanpoko jarduerak...).
Input mediatikoa: komunikabideetatik jasotzen ditugun mezuak hizkuntzei buruz.
Testuinguru politikoa: legeak, testuinguru horietatik jasotzen ditugun mezuak, zerbitzu eskaintza...

Faktore hauek guztiek dute eragina hizkuntza-sozializazioan. Txikiak direnetik faktore hauek guztiak haurrengan ari dira eragiten, eta denboran zehar ondorio batzuk ditu.

Hau da: nahiz eta etxetik euskara ez jaso, inguruan euskara asko entzun badut, erreferente asko baldin baditut, euskaraz kontsumitzeko aukera asko baditut eta euskara balio indartsu eta egokiekin lotzen badut, nahiko normala izan daiteke lagunartean eta beste hainbat harremanetan euskaraz egiteko ohitura izatea. Aldiz, etxetik euskara jaso arren, euskara balio pobreekin lotzen badut, nire inguruan euskararekiko jarrerak ahulak badira, eta ibiltzen naizen talde eta giroetan euskara

erabiltzea ez bada batere ohikoa, seguruenik gaztelaniarako joera hartuko dut.

Beraz, erabileran eragiten duten faktoreetatik ondo aztertu daiteke hizkuntza-sozializazioaren ideia. Faktore horiek zaintzen baldin baditugu, eta euskarak ahalik eta leku eta indar handiena izan dezan pausoak ematen baditugu, haur eta gazteen hizkuntza-sozializazioan aktiboki eragiten dugu eta euskaraz aritzeko ohiturak izan ditzaten baldintza egokiak izan daitezen laguntzen diegu.

Faktore horiengan eragiteko hainbat urrats eman daitezke erakunde eta esparru ezberdinetatik: euskararentzat egokiak diren legeak, gero eta komunikabide gehiago eta gero eta eduki gehiagorekin euskaraz, eta abar. Baina artikulua honetan aurkezten dudana proposamena zuzeneko harremana duten eragileei begirakoa da.

Nor dira haurren eta gazteengan zuzenean eragin dezaketenak? Nork erakutsiko die euskaraz? Nork jarriko dizkie erreferentean eskura? Nork emango dizkie hizkuntza-jokabide aldetik eredu egokiak eta transmitituko dizkie jarrera egokiak? Nork eskainiko die euskara asko entzuteko eta erabiltzeko aukera? Azken batean, nor dira zuzeneko eragileak?

1. ERAGILEAK: GURASOAK, IRAKASLEAK, HEZITZAILEAK ETA GAZTEAK

I

Nor dira haur eta gazteekin zuzeneko harremana duten eta hizkuntza-ohiturak landu ditzaketen eragileak? Gurasoak, irakasleak, eskola orduz kanpoko jardueretako hezitzaileak eta gazteak beraiek. Zer lortu beharko genuke? Hizkuntza-ohituretan eragin nahi dugun erakundeak koordinatzea eta zuzeneko eragile direnak aktibatzea eta antolatzea.

Hizkuntza-sozializazioaz ari gara. Haur eta gazteek hizkuntza-ohitura batzuk izatea nahiko genuke eta horri begira hizkuntza-sozializazio prozesua hartu behar da kontuan.

Haur eta gazteek beraien harremanak batez ere inguru hurbilean izaten dituzte: etxea, eskola, herria/auzoa, eskola orduz kanpoko jarduerak... Beraz, inguru horretan eragin behar da. Egia da telebista eta internet ere eskura dituztela, eta horiek inguru hurbila gainditzen dutela, baina horien kontsumoak ere izaera soziala du neurri handi batean (lagunek edota ingurukoek ikusten dutena, entzuten dutena, erabiltzen dutena...).

Nor dira haur eta gazteekin zuzeneko harremana duten eta hizkuntza-ohiturak landu ditzaketen eragileak? Gurasoak, irakasleak, eskola orduz kanpoko jardueretako hezitzaileak eta gazteak beraiek. Zer lortu beharko genuke?


Eragileak hurrekin eta gazteekin zuzeneko harremana duten pertsonak dira. Hau da: gurasoak, irakasleak, hezitzaileak (eskola ordutik kanpoko jardueretakoak) eta haurrak/gazteak beraiek.

Inguru hurbilean kokatzen bagara, eremua herria edo auzoa izango da: hori ematen da hizkuntza-sozializazioa haurren eta gazteen kasuan (18 urtera arte behintzat neurri handi batean).

Herri eta auzoetan hainbat erakundek eragin nahi izaten dute haurren eta gazteen hizkuntza-ohituretan, gutxienez honako hiru hauek: ikastetxeak (eta kasu batzuetan guraso elkarteak), Udaletako euskara zerbitzuek eta Euskara Elkarteak (baita antzeko helburua izan dezaketen beste kultur elkarte edo auzo elkarte batzuek ere).

Baina beraiek ez dira eragile zuzenak, eragileak hurrekin eta gazteekin zuzeneko harremana duten pertsonak dira. Hau da: gurasoak, irakasleak, hezitzaileak (eskola ordutik kanpoko jardueretakoak) eta haurrak/gazteak beraiek. Haurren eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragileren begira, zuzeneko eragile hauen jarrera aktiboak bilatu eta landu behar dira, horiek garatzea izan daiteke hizkuntza-sozializazioan euskarari bide emateko lehentasunezko ardatzetako bat. Ondorengo irudian azaltzen da ideia hori.

1. irudia. Euskararen sozializatorako eragile nagusiak



Gurasoak, irakasleak, hezitzaileak eta haurrak/gazteak. Horiek dira zuzeneko eragileak. Herri eta auzoetan hori buruan izan behar dugu eta eragile bakoitzarekin hainbat urrats eman daitezke.


Horrek ez du esan nahi guztiekin eta modu berean egin behar denik. Herri bakoitzean, dauden ezaugarrien eta aukeren arabera, batzuei edo besteei eman ahal zaie lehentasuna.

Hori bai, benetan garrantzitsua da erakundeka koordinatuta aritzea (udalak, ikastetxeak, Euskara Elkarteak edota bestelako erakunde batzuk) eta eragileen inguruko sarea osatzen ahalegintzea. Hau ere, noski, herri bakoitzak bere ezaugarri eta aukeren arabera egin beharko du, baina bidea argi izatea garrantzitsua da.

Ondorengo puntuetan eragileetako bakoitzaren inguruan oinarri eta proposamen batzuk aurkeztuko ditut, eta, ondoren, guztiak koordinatzeari buruzko azalpen bat ere egingo dut.

2. GURASOENGAN ERAGITETIK GURASOAK ERAGILE IZATERA

I



Zer nahi dugu? Gurasoak euskararekiko aktiboak izatea: bai guraso euskaldunak baita euskaraz ez dakitenak ere. Horri begira lan egiten da eta egin daiteke Udaletatik, ikastetxeetatik...

Baina seme-alaben hizkuntza-ohiturekin arduratuta dauden gurasoak eragile ere izan daitezke, eta garatzea merezi duen bideetako bat izan daiteke hori.

Gurasoengan eragiten

Hainbat udalek dituzte abian gurasoengan eragiteko plangintzak: gehienetan *Familia bidezko hizkuntza-transmisioaren plangintzak* izenekoak. Argitalpen asko eta oso txukunak egin dira eta ikus-entzunezkoek ere gero eta leku handiagoa dute plangintza horien bidez gurasoei mezuak ematen zaizkie eta tresnak eskaintzen zaizkie euskararekiko aktiboak izan daitezen:

Ohiko kezkak izaten dira: euskara ondo ez dakitenek seme-alabekin erabili behar ote duten, euskaraz ez jakiteagatik ikasketa prozesuan ezingo dietela seme-alabei lagundu, ingelesarekin noiz hasi, eta abar.

**Plangintza
gehienak haur
nahiko txikiak
dituzten gurasoei
zuzendutakoak
dira (0-6 urte)
eta hizkuntza-
sozializazioaren
ikuspegitik hori
oso mugatua da.**

- Euskara ikasteko diru-laguntzak
- Euskarazko produktuen katalogoa euskarazko produktuak oparitzera begira
- Jolas ikastaroak seme-alabekin jolasterakoan baliabideak izatera begira
- Aholkuak euskararekiko jarrera egokiak transmititzera begira
- ...

Bestalde, gero eta ikastetxe gehiagok dituzte gurasoengan eragiteko plangintzak (batzuetan udalen plangintzekin koordinatuak). Ikastetxeen helburuetako bat ikasleek hizkuntza bat baino gehiago ondo ikastea da, eta gainera ikastetxe askoren kasuan ikasleen euskararen erabileran ere eragin nahi da. Bi helburu horiei begira ikastetxeetan konturatzen dira gurasoak irakasleen norabide berean aritzea garrantzitsua dela eta gurasoengan eragiteko plangintzak abian jartzen dituzte.

Oro har, ikastetxeen plangintzak udalek dituzten plangintzen antzekoak dira, baina bi ezberdintasun nagusirekin: gurasoekin harremana eta baliabideak. Ikastetxeen plangintza hauetan baliabide gutxiago erabiltzen dira (udalek esku-orri edo gida txukunak argitaratu ditzakete baina hori zailagoa da ikastetxe batentzat), baina baliabide gutxi izan arren gurasoekin harremana zuzeneko da (bilerak, harreman informalak...). Udaletako plangintzen kasuan zailtasun nagusienetako bat gurasoei mezua ondo helaraztea da, gurasoekin zuzeneko harremanik ez dagoelako. Irakasleen kasuan aldiz, zuzeneko harremana erabil dezakete mezua emateko.

Beraz, egokiena eta eraginkorra udalak eta ikastetxeak koordinatuta aritzea da.

Udal eta ikastetxeen plangintzetan, oro har, honako ideia hauek kontuan izaten dira:

- Oinarrizko mezua eleaniztasunean, euskararen erabileran eta gurasoen jarreran kokatzen da: hurrek eta gazteek hizkuntza bat baino gehiago ondo ikastea nahi da eta horretan lan egiten da, baina hizkuntza-ohitura batzuk ere sustatzen dira (euskara askorekin eta egoera askotan erabiltzea). Bi helburu horiei begira ikastetxeak

bere lana egingo du, baina mugak ditu eta gurasoek euskararekiko jarrera aktiboa izatea beharrezkoa da.

— Haurren adinera egokitutako mezuak eta tresnak: oinarrizko mezua haurren adinera eta gurasoen interesguneetara egokitu daiteke. Adibidez: haurdun dauden gurasoei begirako mezuak, jaio berrientzat, eskola hasten direnentzat, eskola orduz kanpoko jardueri begirakoak.

— Gurasoen ezaugarrietara egokitutako mezuak eta tresnak: guraso euskaldunei begirako mezuak, euskara ondo ez dakitenei begirakoak, ezer ez dakitenei, etorkinei. Batzuen eta besteen interesak eta beharrak ezberdinak dira. Adibidez: euskaraz ez dakiten guraso askok seme-alabek euskara ondo ikastea nahi dute baina ez zaie axola lagunartean zein hizkuntza erabiltzen duten, eta beraz, mezua euskara ondo ikastearen bidean kokatu beharko da (eta ondo ikasteko asko erabili behar dute) eta ez lagunartean euskara erabiltzearen inguruan (ez zaie axola).

— Gurasoen beldurrak eta kezkek kontuan izaten dira: mezuak kontuan izateko eta tresnak erabiltzeko gurasoen kezkek eta beldurrak kontuan izatea beharrezkoa da. Adb: guraso baten kezka bada seme-alabek gaztelania ondo ikasiko ote duten (eta testuinguru erdaldunetan ere asko agertzen den kezka da), oso zaila da guraso hori euskararekiko aktiboa izatea. Beraz, kezka argitu eta gero mezu egokiak eta tresnak eskaini. Ohiko kezkek izaten dira: euskara ondo ez dakitenek seme-alabekin erabili behar ote duten, euskaraz ez jakiteagatik ikasketa prozesuan ezingo dietela seme-alabei lagundu, ingelesarekin noiz hasi, eta abar.

Kontuan izan behar da, bestalde, plangintza hauek eragin mugatua dutela:

— Ondo dago gurasoei mezuak ematea eta askok oso gustura hartzen dituzte proposamenak, baina plangintzak proposamenak aurkeztera mugatzen dira.

— Plangintza gehienak haur nahiko txikiak dituzten gurasoei zuzendutakoak dira (0-6 urte) eta hizkuntza-sozializazioaren ikuspegitik hori oso mugatua da.

Gurasoek ezin dute erabaki seme-alaben hizkuntza ohiturak nolakoak izango diren, baina oinarri on bat jar dezakete. Oinarri hori eskaintzea gurasoon esku dago.

Gurasoak eragile

Gurasoengan eragitea egokia eta beharrezkoa da, baina ez al da eragin-korragoa gurasoak beraiek eragile bihurtzea? Asko dira seme-alaben hizkuntza-ohiturekin arduratuta dauden gurasoak, eta beraz, zergatik ez bildu eta antolatu? Gero eta esperientzia gehiago ematen ari dira arlo honetan, baina oraindik ibilbide luzea izan dezakeen arloa da.

Euskararekiko arduratuta dauden gurasoei dagokionez:

— Normalean guraso euskaldunak izaten dira: seme-alaben hizkuntza-ohiturekin guraso euskaldunek izaten dute kezka. Are gehiago, kasu askotan bestela ere euskararekiko aktiboak diren pertsonak dira.

— Testuinguru erdaldunetan edo mistoetan bizi diren guraso askok ezintasunetik bizi dute euskararen erabileraren gaia: seme-alaben hizkuntza-ohituretan eragiten ahalegintzen dira baina mugak aurkitzen dituzte eta baliabideak falta zaizkie eragiteko.

Seme-alaben hizkuntza-ohituretan eragin nahi duten gurasoen kasuan, abiapuntu egokia izan daiteke honakoa:

- Seme-alaba euskaldun eleanitzak
- Ulertzetik laguntzera
- Oinarri on bat eskaintzen ahalegindu

Seme-alaba euskaldun eleaniztunak zalantzarik gabe, seme-alabek hizkuntza bat baino gehiago ondo ikastea nahi dute. Baina hizkuntzak ondo ikasteaz gain, seme-alabek euskara erabiltzeko ohitura izatea nahi dute, bai lagunartean eta baita beste hainbat harremanetan ere.

Horretan lagundu nahi baldin badiete seme-alaben hizkuntza-ohituren nondik norakoak ulertu behar dira. Gurasoek nahi dute seme-alabek euskara erabiltzeko ohitura izatea (ez da haurren/gazteen helburua) eta lagundu egin beharko diete. Baina lagundu ahal izateko hizkuntza-ohituren oinarrian zer dagoen ulertu behar dute. *Erabileran eragiten duten faktoreak* ezagutzea eta aztertzea benetan lagungarria da horri begira.

Gurasoek ezin dute erabaki seme-alaben hizkuntza ohiturak nolakoak izango diren, baina oinarri on bat jar dezakete. Oinarri hori eskaintzea

gurasoon esku dago. Hiru esparru hauek zaintzea izan daiteke oinarri on hori eskaintzeko modua:

- Hizkuntza-aberastasuna
- Hizkuntza-ohiturak eta eredu egokiak
- Bizipenak eta erreferenteak

Ahalik eta euskara aberatsena eskaintzen ahalegindu behar dute. Hizkuntzarekin asko jolastu behar (abestiak, ipuinak kontatzea...) eta egoera komunikatibo asko sortu eta bideratu.

Seme-alabek hizkuntza-ohitura egokiak ikusi behar dituzte eta gurasoek eredu egokiak eskaintzen ahalegindu behar dute. Hau da, seme-alabek ohitura batzuk izatea nahi badute ezin hobea da etxetik eredu horiek eskaintzea eta ikustea gurasoak euskararekiko aktiboak direla. Hauxe izan daiteke bidea: gero eta harreman eta egoera gehiagotan euskaraz. Gurasoen jokabidea hori bada, hutsuneak hutsune eta kontraesanak izatea ere normala dela onartuta, seme-alabek euskararekiko aktiboak diren pertsonen ereduak jasotzen ari dira. Jokabide asko eta asko imitazioz ikasten dituztenez, ikus ditzatela eredu egokia gutxienez etxetik.

Bizipenak eta erreferenteak behar dituzte. Zenbat eta gehiago hobe. Gaztelaniaz/frantsesez ziurtatuak dituzte, eta beraz, euskaraz ere izan ditzaten zaindu behar dute gurasoek. Erreferenteen kasuan ezagunak eta gertukoak izan daitezke: musikariak, kirolariak, aktoreak, kirol jarduerako entrenatzailea, beraiek baino helduxeagoak diren gaztetxoak... Eta bizipenek ere garrantzia handia dute: euskarazko jarduerak, ekitaldiak, harremanak...

Haurrak direnetik esparru hauek zaintzen badituzte, gazte-helduak izatera iritsi eta hizkuntza hautatzerako garaian motibazio kontzienteez ere parte hartzen dutenean, oinarria egokia izango da: euskara aberatsa baldin badute, eredu egokiak jaso badituzte eta bizipen eta erreferente asko baldin badituzte, beraien ohiko eta ez ohiko harremanetan euskararen aldeko hautua egin dezaten oinarria egokia da. Aldiz, ez badute aberastasun handirik, eredu egokirik ez badute jaso, eta bizipen eta erreferente gutxi baldin badituzte, zailagoa izango da euskararekiko jarrera aktiboak izatea, eta testuinguruan gaztelaniak/frantsesak indar handia badu erraz joko dute hizkuntza horretara.

Seme-alabei euskara gehiago erabil dezaten lagundu nahi diete eta arduratuta orain daude: ikusten dute gaztelaniara/frantsesera gero eta gehiago jotzen dutela edo gaztelaniara/frantsesera jotzeko arriskua nabarmena dela. Guraso hauek tresnak nahi dituzte seme-alabei laguntzeko.

Noski, oinarri hauek guraso bakoitzak zaindu ditzake, baina askoz eraginkorragoa da gurasoak antolatuta aritzen badira. Adibidez: guraso bat saiatu daiteke seme-alabei euskal musikan erreferente asko eskaintzen, baina haur edo gazte horren lagunek ez badute musika hori entzuten zaila izango da gure berarentzat erreferente indartsua izatea. Aldiz, gurasoak antolatu (eta beste eragileekin koordinatu) eta bide ezberdinetatik eskaintzen badizkiete erreferente horiek agian lor dezakete askorentzat erreferente indartsu izatea.

Euskararen erabilerarekin arduratuta dauden gurasoak biltzeko eta antolatzeko ahalegina egiten den kasuetan, kontuan izan behar da bi norabidetan lan egin dezaketela guraso horiek:

— Epe luzera begirako lana egin daiteke: guraso guztiei begira

— Epe motzera-ertainera begirako lana egin daiteke: euskararen erabilerarekin arduratuta dauden gurasoei begira


Seme-alabek euskara erabil dezaten testuingurua egokia izan dadin guraso guztiengan eragiteko urratsak eman daitezke: guraso euskaldun zein erdaldunengan eragin euskararekiko aktiboak izan daitezen eta beraien seme-alabengan eragiten ahalegindu daitezen. Udal eta ikastetxeen plangintzen osagarri oso egokia izan daiteke, baina epe luzera ikusten dira lorpenak.

Baina guraso hauek epe motzean ere eragin nahi dute. Seme-alabei euskara gehiago erabil dezaten lagundu nahi diete eta arduratuta orain daude: ikusten dute gaztelaniara/frantsesera gero eta gehiago jotzen dutela edo gaztelaniara/frantsesera jotzeko arriskua nabarmena dela. Guraso hauek tresnak nahi dituzte seme-alabei laguntzeko. Eta tresna hauek garatzen eta eskaintzen lan handia egin dezake guraso talde batek. Adibidez: seme-alaben euskararekiko jarrerak lantzeko aholkuak eta ideiak, arnasguneak eskaintzeko ideiak eta jarduerak (euskara edo beste hizkuntza bat hautatu behar ez duten egoerak), eta abar.

Gero eta esperientzia gehiago garatzen ari dira bide honetatik eta oso kontuan hartu beharreko esparrua da.

3. IRAKASLEAK ERAGILE

I



Zer nahi dugu? Irakasleek haur eta gazteen euskararen ezagutzari begira eta hizkuntza-ohiturei begira egiten duten lanarekin jarraitzea, eta gero eta eragin-korragoak izan daitezten tresna eta baliabide egokiak eskura jartzea.

Irakasleak eragile aktiboak dira haurren eta gazteen hizkuntza-sozializazioan.

Irakaskuntzari esker (irakasleek egindako lanari esker) haur eta gazte askok ikasi dute euskara, eta ikastetxeetan egindako ahaleginek eragin zuzena dute euskararen erabileran.

Noski, oraindik aurrera pausoak eman daitezke irakaskuntzan gero eta eraginkorragoak izatera begira, eta bide horretan etengabe ematen dira urratsak. Artikulu honetan atal honi leku txikia egingo zaio, beste atalak baino garatuagoa eta ezagunagoa baita hemen egiten den.

Irakasleak eragile izatearen inguruan hiru ideien inguruan hausnarketa bat:

- Mugak onartzea
- Herriarekin lotura eta beste eragileekin koordinazioa
- Eraginkorrak izateko formazioa

Euskararen erabilerarekin arduratuta dauden irakasle askok gaur egun ezintasunetik eta etsipenetik bizi dute gai hori: euskaraz ikasten duten haur eta gazteak dira, irakasleek ahalegina egiten dute lagunartean euskaraz egin dezaten, baina askotan lorpenak eskasak dira (gelatik kanpo euskararen erabilera jaisten da, gelan bertan ere gaztelaniaren/frantsesaren presentzia handia...). Irakasleentzat lagungarria da dituzten mugez ohartzera: bai kuantitatiboak (ikasleek eskolan ematen duten

Irakasleak eragile izatearen inguruan hiru ideien inguruan hausnarketa bat - Mugak onartzea - Herriarekin lotura eta beste eragileekin koordinazioa - Eraginkorrak izateko formazioa.

Euskararen erabilera sustatzera begira eskola orduz kanpoko jarduerak dira hurrengo urteetan garapen handia izan dezakeen eta izatea merezi duen arloetako bat.

denbora) baita kualitatiboak ere (*Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak*, adibidez). Mugak onartzen direnean, errazagoa da egokiak diren helburuak jartzea eta helburu horiek lortzea. Agian ikasleek ez dute irakasleek nahi luketen euskara gutzia erabiliko, baina bai bestela erabiliko luketen baino askoz euskara gehiago.


Horretaz gain, irakasleek ikasleen euskararekiko jarrerak ere landu ditzakete: diskurtso egokia, jarrerekin lotutako jarduerak, testuingurura egokitutako irizpide eta egoerekin...

Hizkuntza-ohiturei begira eskolak dituen mugak ikusten badira, ikastetxeetan errazago barneratzen da beste erakundeekin elkarlanean aritzeko beharra: Guraso Elkarteak, Udala, Euskara Elkartea... Herriko ikuspegia hartzen bada, argiago ikusten da zer egin daitekeen irakasleen bidez, zer gurasoen bidez, zer Udaletik, nola koordinatu eraginkorrak izateko, eta abar.

Eskolak mugak dituen arren, muga horien barruan eraginkorrak izateko ahalegina ere egin behar dute irakasleek, eta horretarako formatzen eta bideak garatzen jarraitu beharko dute. Egindako gauza asko oso ondo egin dira, eta aurrerantzean horretan jarraitu beharko da.

4. HEZITZAILEAK ERAGILE

I



Zer nahi dugu? Eskola orduz kanpoko jardueretan euskararen erabilera sustatzea. Horretarako, antolatzaileek beraien jardunaren barruan txertatu behar dute eta hezitzaileek baliabide egokiak behar dituzte.

Euskararen erabilera sustatzera begira eskola orduz kanpoko jarduerak dira hurrengo urteetan garapen handia izan dezakeen eta izatea merezi duen arloetako bat. Zenbait tokitan orain dela urte batzuetatik esparru honetan lanean ari dira, baina oro har oraindik behar bezala ez da toki askotan garatu.

Eskola orduz kanpoko jarduerak dituzten ezaugarriek, hizkuntza-ohituretan eragiteko tresna eraginkor izatea ekartzen du:

— Jarduera gidatuak dira eta pertsona batek dinamizatzen ditu: kiroleko entrenatzaileak, musikako edo dantzako irakasleak eta aisialdiko begiraleak. Dinamizatuak diren neurrian, euskararen erabilera ere dinamizatu daiteke.

— Talde bat osatzen da eta talde horrek elkarrekin hainbat saio egiten ditu: ikasturte osorako osatutako taldeak edota hilabete baterako. Beraz, talde batekin lan egin daiteke: helburu zehatzak jarri eta estrategiak aplikatu.

— Eskolako klaseak baino ludikoagoak dira. Bizipenak ugariak eta indartsuak dira eskola orduz kanpoko jardueretan, euskara bizipen erakargarri eta indartsuekin lotzeko bidea da.

— Erreferenteak ere eskaintzen dituzte: entrenatzaileak, jarduerak bera egiten duten partaide helduagoak, eta abar.

Eskola orduz kanpoko jardueretan bi urrats ematea lortu behar da: batetik, jarduera euskaraz eskaintzea, eta bestetik, jardueretan euskararen erabilera sustatzea.

Oinarrizko urratsa jarduerak euskaraz eskaintzea da: hezitzaileak euskaldunak izatea eta jardueran euskaraz egitea. Hainbat udalerriren kasuan, urrats hauek ondo eman dira eta gaur egungo errealitatea orain dela urte batzuetakoa baino askoz hobea da.

Bigarren urratsa jarduera horietan euskararen erabilera sustatzea da. Hau da: hezitzaileek formazioa eta baliabideak izatea haur eta gazteen artean euskararen erabilera modu egoki eta eraginkorren sustatzeko. Jarduera euskaraz eskaintzea urrats garrantzitsua izango da zenbait testuingurutan, baina aurrerapauso handiena emango da jardueretan erabilera sustatzea lortzen denean. Ez da nahiko hezitzaileari eskatzea jarduera euskaraz dinamizatzea, ezta jardueran euskararen erabilera sustatzea ere. Irizpide eta baliabide egokiak behar dituzte. Bide horretan argitalpen oso egokia da Ttakun Kultur Elkarteak eta Gipuzkoak Foru Aldundiak 2007an egindakoa: *Hezitzaileek asko egin dezakete*. Bertan hainbat oinarri, estrategia eta tresna biltzen dira eskola orduz kanpoko jardueretako hezitzaileei begira.

Eskola orduz kanpoko jardueretan bi urrats ematea lortu behar da: batetik, jarduera euskaraz eskaintzea, eta bestetik, jardueretan euskararen erabilera sustatzea.

Estrategien oinarrian ideia hauek daude:

- Erabilera sustatzearen helburua hezitzailearena da
- Bizipen positiboekin lotzea nahi dugu
- Hezitzaile Berritsuak

Badirudi jarduera euskaraz denez haurrek eta gazteek euskaraz egin beharko luketela, eta horrela ez den kasuetan askotan errua parte hartzaileei botatzen zaie. Baina ez da kontuan hartzen agin talde horretako kideek izan duten bilakaeran (hizkuntza-sozializazioan), normalena gaitelaniaz/frantsesez egitea dela. Aurreiritzi hau oso ohiko izaten da hezitzaileen eta irakasleen artean. Beraz, hobe hori albo batera uztea eta beste modu batera ikustea: euskararen erabilera sustatu nahi duena hezitzailea da. Haurrek/gazteek euskara erabiltzeko erraztasun eta jarrera hobea edo eskasagoa izango dute, baina ez da beraien helburua euskara gehiago erabiltzea. Beraz, lagundu egin beharko zaie euskara gehiago erabiltzen.

Gainera, euskararekin bizipen positiboak izatea lortu behar da: euskara egoera eta sentsazio positibo askorekin lotzea lortu behar da eta horretarako eskola orduz kanpoko jarduerak oso egokiak dira. Beraz, edozein estrategiak ez du balio erabilera sustatzerakoan, estrategia batzuk erabilera sentsazio eta bizipen negatiboekin soilik lotzea ekartzen baitute.

Behar bezala eragiteko helburuak ondo aukeratu behar dira eta estrategiak ere ondo aukeratu behar dira. Estrategia guztien oinarrian *Hezitzaile Berritsuaren* ideia dago. *Hezitzaile Berritsuak* elkarrizketa asko sortzen eta bideratzen dituztenak dira, bai banakoekin baita partaideen artekoak ere. Beraz, hezitzailearen parte-hartze zuzenaren bidez lortu daiteke euskararen erabilerak aurrera egitea edo erabilera altua denean ohiturak finkatzea.

Hori bai, eskola orduz kanpoko jardueren arlo honi behar bezala heldu nahi bazaio ez du balio hezitzaileak kontzientziatzeko kanpaina edo antzekorik egitea. Plangintza sendo eta iraunkorragoak beharrezkoak dira. Hezitzaileek euskararen erabilera sustatzea nahi da, baina horretarako erakunde antolatzaileek zeregin hori barneratzea beharrezkoa da, eta hori izaten da zailtasunetako bat:

- Hainbat erakunderen egiturak ez dira oso finkoak, eta lorpen batzuk denbora laburrean desagiten dira.


— Erakundeek, proposamenak egiten zaizkienean, oinarrian dagoen ideia ulertzen dute eta egokitzat ematen dute, baina erakundeen jardunean txertatzea kosta egiten da. Mezu horiek ez badira barneratzen, lorpenak azkar desegiteko arriskua handiago da.

Plangintza bat abian jarri nahi bada erabilgarria da Topagunea Euskara Elkarteak 2010ean argitaratutako gida bat: *Elkarteetan eragiten hitzarmengintzaren bidez. Entitateak euskalduntzeko metodologiaren garapena*. Gida horretan hitzarmen bidez elkarteekin lan egitea proposatzen da, eta eskola orduz kanpoko jardueri begirako hainbat aholku eta baliabide eskaintzen ditu.

Arlo honi garrantzia ematen bazaio, zein urrats eta nola eman zehaztea ez da zaila eta aipatutako argitalpenean irizpide oso argiak agertzen dira. Gehiegizko baliabide handiegirik gabe lorpenak ere epe laburrena ikusten dira, eta hizkuntza-ohiturak lantzeko bidean ezinbestean kontuan izan beharreko esparrua da.

5. GAZTEENGAN ERAGIN ETA GAZTEAK ERAGILE

I



Zer nahi dugu? Gazteek euskararekiko jarrera eta jokabide aktiboak izatea. Horri begira, bideetako bat gazteengan eragitea da sentsibilizazio saioen bidez.

Baina, bestalde, gazteak beraiek eragile izan daitezen bide ematea ere bada aukera. Gazteak eragile bihurtuta berdinen artean eragitea lortzen da eta goitik behera (irakasle edo gurasoen bidez) aritzea baino eraginkorragoa ere izan daiteke.

Gazteengan eragiten

Haurren eta gazteen euskararen erabileran eragiteko estrategiak eta tresnak eskura izan behar dituzte irakasleek, hezitzaileek eta gurasoek.

Haurren eta gazteen euskararen erabileran eragiteko estrategiak eta tresnak eskura izan behar dituzte irakasleek, hezitzaileek eta gurasoek. Baina, horretaz gain, gazteengan eragin daiteke beraiek ere euskaraz bizitzeko edo gero eta euskara gehiago erabiltzeko gogoia eta jarrera izan ditzaten.

Baina, horretaz gain, gazteengan eragin daiteke beraiek ere euskaraz bizitzeko edo gero eta euskara gehiago erabiltzeko gogoia eta jarrera izan ditzaten.

Horri begira, orain dela urte batzuetatik abian dira tailer edo jardueren ezberdinak: Itakun Kultur Elkartearen *Motibazio Saioak*, Urtxintxa Elkartearen *HezHiz* programa, Topagunearen *Zergatik ez?* tailerrak, Emunen *Telp* tailerrak eta abar.

Sentiberatze tailer eta programa horiek irakasleen bidez ere egin daitezke, eta hainbat institutu eta ikastetxeetan abian dituzte gazteen jarreretan eragiteko plangintzak. Besteak beste: Gasteizko Mendebaldea institutuan, Aretxabaletako Kurtzebarri institutuan, Deba Goieneko Arizmendi ikastolan, Laudio ikastolan, Elgoibarko ikastolan eta institutuan...

Modu honetako tailer eta jarduerekin ikasleekin euskararen inguruan eta euskararen erabileraren inguruan hausnartzea bilatzen da, eta soziolinguistikako oinarrizko kontzeptu batzuetatik abiatuz testuinguruan bizi duten errealitateaz ohartzea eta hor eragile izan daitezkeela ikustea. Azken batean hizkuntza-sozializazio prozesuaz jabetzea nahi da eta hor ematen diren egoerak aldakorrak direla eta beraiek aktiboki aldatu ditzaketela konturatzea bilatzen da. Plangintza hauetan garrantzia handia ematen zaio testuingurura egokitzeari, eta jarduerak eta hausnarketak modu ezberdinean bideratzen dira testuinguru euskaldunetan, erdaldunetan edo tartekoetan.

Gazteak eragile

Haur eta gazteen euskararen erabilera sustatu dezakegu eta hizkuntza-ohiturei begirako jarrerak landu ere bai, baina bide emankorra izan daiteke gazteak beraiek eragile eta protagonista bihurtzea.

Euskararekiko jarrera eta jokabide aktiboak dituzten gazteek eragin handia izan dezakete inguruko haur eta gazteengan, eta merezi du bide horri heltzeak.

Hainbat institututan antolatzen dira Ikasleen Euskara Batzordeak. Horren inguruko esperientzia handia da eta eredu oso ezberdinak erabili izan dira: borondatezko taldeak, geletako ordezkariekin osatuak, dinamizatuak eta dinamizatu gabeak...

Eredu eta aukera ezberdinak egon daitezke, baina partaideei oinarritzko formazio bat ematea aproposa da: kokatzeko eta eraman beharreko norabidea argi izateko. Zertarako osatu da Euskara Batzordea? Zein dira helburuak? Zein mezu zabaldu nahi dira? Eta abar. Handik aurrera talde bakoitzak bere ezaugarrietara egokitutako jarduerak antolatu eta bideratuko ditu.

6. ERAGILEEN SAREA OSATZEN

I

Gurasoak, irakasleak, hezitzaileak eta gazteak zuzeneko eragileak dira haur eta gazteen hizkuntza ohiturei begira. Eragile horiek aktibatzeke eta antolatzeke hainbat ahalegin egin dira eta hainbat esperientzia daude. Horri begira, egokiena eta eraginkorrena hizkuntza-ohituretan eragitea helburu duten erakundeak elkarlanean eta koordinatuta aritzea da: Udalak, ikastetxeak, Euskara Elkarteak...

Puntu honetan horren inguruko adibide zehatz bat aurkezten da. Gaur egun abian dagoen eta garatzen ari den esperientzia bat da. Beste hainbat eredu aurkeztu daitezke, baina artikuluko planteamenduekin lotura zuzena duenez egoki ikusi da hona ekartzeko.

Haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragile direnekin zein bide garatu daitezkeen azaltzen da aurreko puntuetan. Aipatzen diren bide horiek guztiak osagarriak dira, eta guztiei heltzea eta bakoitza garatzea komeni da. Baina, noski, hau proposamen bat da eta ez da beharrezkoa ez guztiei batera heltzea ezta guztiei lehentasun berbera ematea ere. Tokian tokiko erabakiak hartu beharko dira eta lehentasunak jarri beharko dira. Hori bai, eraginkorrak izateko bide bakoitza ondo lantzea beharrezkoa da eta erakundeak elkarrekin ondo koordinatzea ere bai. Koordinatzeko moduak ere ezberdinak izan daitezke, eta gaur egun badira hainbat eredu. Ondorengo puntuan eredu horietako bat aurkezten da, artikuluan aurkezten den ikuspegitik garatutako eredu bat.

Elgoibarren eragileen sarea osatzen

Elgoibarko Udalak, Elgoibarko Izarra Euskara Elkarteak eta herriko ikastetxe guztiak elkarlanean ari dira gau egun: guztiak daude haur eta gazteen hizkuntza-ohiturekin arduratuta eta elkarlanean eragiteko prest daude.

Gurasoengan eragiten

- Elgoibarko Udalak hainbat urte daramatza familia transmisio programarekin eta hainbat jarduera antolatzen ditu horren barruan.
- Elgoibarko Herri Eskolan ere abian dute familiei begirako plangintza.
- Elgoibarko Izarra Euskara Elkarteak ere badu programa bat gurasoei begira.
- Gurasoengan eragiten jarraituko da aurrerantzean ere.

Gurasoak eragile

- Gurasoen bi batzorde antolatu dira: bat Herri Eskolan eta bestea Ikastolan. Batzorde bakoitzak eskolaren ezaugarrietara egokitutako plangintza garatuko du baina elkarrekin egingo dituzten jarduerak ere egongo dira.
- Gurasoen Euskara Batzordeak, ikastetxeen egituren barruan egonda ere, Euskara Elkarteko kide batek dinamizatzen ditu. Bi batzordeak pertsona berberak dinamizatzen ditu. Modu horretan, batzordeen arteko lotura egitea erraza da eta herri mailako eragile ere badira Euskara Elkarte bitartekari izatean.

Irakasleak eragile

- Hainbat formazio saio egin dira herriko ikastetxeetan. Batetik, ikasleen euskararen erabileran eragiteko estrategiei begira, eta bestetik, ikasleen euskararekiko jarrerak lantzeko plangintzak lantzerantz begira.

Hezitzaileak eragile

- Hitzarmengintzako plangintza bat abian jarri da herriko erakundeetan eragiterantz begira. Helburua: haur eta gazteei zuzendutako eskola orduz kanpoko jardueretan euskararen erabilera sustatzea.
- Hitzarmengintzako plangintza sustatu dute Udalak, Euskara Elkarteak eta ikastetxe guztiek. Lana nagusien ardurak eta dinamizazioa euskara elkarteak hartu ditu. Hau da, euskara elkartetik baina guztien izenean lan egiten da.

Gazteengan eragiten

- Ikastolan eta institutuan irakasleen bidez gazteen euskararekiko jarretan eragiteko plangintzak abian daude.
- Euskara Elkartek *Zergatik ez?* sentsibilizazio tailerrak egiten ditu DBH4ko eta Batxilergoko lehen mailako ikasleekin.
- Irakasleen bidezko plangintza eta Euskara Elkartearen tailerrak plangintza bakar batean jasotzen dira eta koordinatuta bideratzen dira.

Gazteak eragile

- Ikastolan eta institutuan Gazteen Euskara Batzordeak osatu dira. Euskara Elkartek dinamizatzen ditu batzorde horiek. Modu horretan, eskolara egokitutako plangintza bat egiten da baina herriarekin lotura ere egiten da: eragile diren gazte horiek, eskolako ibilbidea amaitzean, dagoeneko badute euskara elkartearekin lotura eta herri mailan eragile izatera pasa daitezke.

Elgoibarko ereduak erabili dut *Eragileen sarearen* ideia oso argi ikusten delako. Aipatzen diren atal batzuk ondo landuta eta garatuta daude eta beste batzuei orain heldu zaie. Ziur gora beherak eta zailtasunak ere egongo direla tartean, baina garrantzitsuena hartutako bidea da:

- Haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragin nahi duten erakundeak elkarlanean eta koordinatuta: Udala, ikastetxeak eta Euskara Elkartea.
- Zuzeneko eragile diren arlo guztiak garatuz eta antolatuz: Gurasoen Euskara Batzordeak, Gazteen Euskara Batzordeak, irakasleen formazioa, Hitzarmengintzako programa eskola orduz kanpoko jardueri begira...
- Kasu honetan, gainera, erdigunean Euskara Elkartea jarri da: herri ikuspegitik ari direnez, herriko erakunde bat erdigunean jartzea aproposa da. Lidergoa hartu dezake, dinamizazio lanak egin, koordinazio lanak... Epe ertain eta luzera bide hau garatu eta indartzera begira Euskara Elkartea erdigunean egotea benetan lagungarria izan daiteke. (Euskara Elkarerik ez balego, beste aukera batzuk aztertu beharko lirateke).

**Herri mailan
zuzeneko eragile
izan
daitezkeenekin
lan egin behar da
eta hizkuntza-
ohituretan
eragitea helburu
duten
erakundeek
elkarlanean aritu
beharko lukete
benetan
eraginkorrak
izatera begira.**

7. LABURBILDUZ

I

Haur eta gazteen hizkuntza-ohiturei begira hizkuntza-sozializazioaren ikuspegiak laguntzen digu testuingurua ulertzen eta norabidea ikusten. Norabide horretan herri mailan zuzeneko eragile izan daitezkeenekin lan egin behar da eta hizkuntza-ohituretan eragitea helburu duten erakundeek elkarlanean aritu beharko lukete benetan eraginkorrak izatera begira. Eragileen sarea osatzen horri begirako adibide bat da, hainbat Udalerritan modu batera edo bestera garatu izan dena eta adibide zehatz batekin aurkeztu nahi izan dudana. ●

AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

Soziolinguistika Klusterra. 2011. Erabileraren GPSa. <http://www.soziolinguistika.eus/gazteak>

Ttakun Kultur Elkartea: 2007. Hezitzaileek asko egin dezakete eskola orduz kanpoko jardueretan nerabeen artean euskararen erabilera sustatzeko. Ttakun Kultur Elkartea eta Bizkaiko Foru Aldundia. http://www.google.com/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=1&ved=0CB0QFjAA&url=http%3A%2F%2Fwww.ttakun.com%2FZerbitzuak%2FHAED_PDFak%2FHAED2007_liburua.pdf&ei=Jso4Vfq1Eo3gasqOgBg&usq=AFQjCNHOh163gIRyRW_pr4PbjY147133pQ&sig=2=OdGFgy8dTHO2l-RUqJF9Wg